

AURKEZPENA

Nerea, Leire eta Marina gara proiektu honen egileak. Gure enpresa "Turismo ABA" da eta gure eginkizuna turistei ekintza desberdinak egiteko aukera ematea da, prezio paregabean!

Getariara gero eta turista gehiago etortzen dira. Arrazoi honengatik, ideia paregabea iruditu zitzaigun gure herrian turismo elkarte hau sortzea.




Turismo ABA

BALOREZKO PROPOSAMENA

Bezeroek, gure enpresara etortzeko tentazioa edukiko dute. Bertan hiru langile gara eta denok sei hizkuntza dakizkigu: Euskara, Gaztelania, Ingelesa, Frantsesa, Japonera eta Alemana. Bestalde, prezio paregabeak ditugu (balio kuantitatiboa) eta ekintza desberdin asko, bisitak, txangoak eta kirol ekintzak. Adin guztietarako prestatuta ditugu ekintza guztiak. Gainera, enpresa ireki dugun herrian, Getarian, ez dago horrelako beste enpresarik aukera horiekin. Beraz, ez dugu kompetentziarik edukiko gure herrian.

Gure abantaila nagusia da sei hizkuntza desberdin hitz egiten ditugula. Beraz, herrialde guztietako bezeroekin komunikatu gaitzke eta zerbitzu pertsonalizatuak. Adibidez, turista alemanei alemanez hitz egin (balio kualitatiboa).



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak adin guztietako pertsonak dira, gizarte guztiari eskaintzen dizkiegulako jarduerak. Nahiz eta ekintza desberdinak eduki, denek dute aukera ekintza bakoitza praktikatzeko. Beraz, gure merkatua masiboa edo orokorra da.

Kolektibo honen ezaugarriak ondorengoak dira: turismo edo abenturazaleak diren edozein adineko pertsonak.

Urritasuna duten pertsonentzako zerbitzu bereziak ere baditugu.

Gomendioak:

- Jende helduarentzat: ekintza sozio kulturalak (museoak, bisitak...)
- Gazteentzat: kirolak eta gazteen poltsikora egokitzen diren ekintzak.



FUNTSEZKO ELKARTEAK

Elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak: *Babexa* izango da gurekin lanean ibiliko den elkarte. *Babexa* Getariako denden elkarte da.

Negozio berriak sortzeko enpresen arteko elkarteak: Eusko jaurlaritzaren diru laguntzak izango ditugu gure negozioak ahalik eta zailtasun gutxien edukitzeko.

Lehiakideen arteko aliantza estrategikoak: Euskal Herri mailan turismoan aritzen diren enpresen arteko elkarteekin ere elkartuko gara ,hau da, *APIT* elkartearekin.

Erosle eta hornitzaileen arteko harremanak: Autobus enpresa izango da aurrera eramateko beharrezkoa den baliabide nagusia

Gure abileziak:

- Leire: ideia originalak
- Marina: trebetasuna webgunean
- Nerea: negoziatzeko ahalmena

DIRU ITURRIAK

Gure diru iturri nagusia kapitala izango da. Hiru kideok diru kopuru bera jarriko dugu, 3.000€.
Guztira 9.000€ko kapitala izango dugu. Gure bulegoa kokatuko dugun lokala gurea denez,
ez ditugu gastu asko edukiko. Gastu handienetako bat txangoak egiteko autobusak eta
ekintza desberdinak egiteko materiala alokatzea izango da.

Bulegoan bertan gauza desberdinak izango ditugu salgai (aterkiak, txapelak, oinetako
egokiak...) eta hauek ere diru sarrerak ekarriko dizkigute.

Babexa elkarteak eta *Eusko Jaurlaritzak* diru laguntzak eskainiko dizkigute.

EKINTZAK ETA PREZIOAK

PAGOETA

Agorregi ibilbidea: 5€ pertsonako		}	9€	
Faunaren ibilbidea: 8€	+		Burdinola: 6€	12€
Pagoetako ibilbidea: 12€				14€
Urdaneta - Aia: 5€				9€



GETARIA

- Balenciaga museoa: 10€
- Bakoen bisita eta ibilbidea: 20€
- Txakolindegietara bisita eta dastaketa: 25€



ZUMAIA

Ignazio Zuloaga Kultur Gunea: 4€

San Telmo Ermita "Ocho apellidos vascos": 6€

Flysch: 5€



KIROLAK

Surf (Getaria): 5€

Paddle surf (Getaria): 5€

Bizikleta mendian (Zumaia-Getaria-Zarautz): 3€

Piraguismo (Getaria): 4€

Bela (Getaria): 7€

Paintball (Zarautz): 8€

Parapentea (Zarauzko Campiñean): 20€



KANALAK

Komunikazio-kanalak: Bezeroak gure enpresataz jabetzeko , Instagram eta acebookeko kontu bat sortuko dugu.

Trip dvisor, Eusko jaurlaritzako turismo elkarte, reista espezializatuen bidez ere bezeroek gure berri izango dute.

E-mail kontu bat ere edukiko dugu eta bertatik edozein duda argitzeko prest egongo gara edo bestela telefono zenbaki bat ere izango dugu.

Behin bezeroak kontaktatzen gaituenean eta gure zerbitzu eta ondasunen prezioak ezagutzen dituenen, erlazio hori gauzatzeko, atzerriko bezeroekin salmenta eta komunikazioa egingo dugu email bitartez. Bestalde gure zerbitzua kontratatu nahi badu, kreditu txartelaren bidez ordainketa eskatu beharko du.

Salmenta web orrien bidez egin nahi badu, hauek izango dira gurekin harremanetan jartzeko aukerak:

-Facebook

-Instagram

-Webgune propioa

Laguntza behar badu : email bidez eta estatu mailan telefono bidez



Banaketa-kanalak: ondasunak dendan izango ditugu.

Bezeroak fisikoki gure dendan erosteko ahalmena izango dute eta bestela web orrian erosiko dute, eta ondasun horiek bidaltzeko *hl, ups* edo horrelako enpresa batekin akordio batera iritsiz banatuko ditugu.

Salmenta-kanalak: Gure enpresaren zerbitzuak saltzeko, *Trip Advisor* , eusko jaurlaritzako turismo elkartearen bidez, rebista espezializatueta eta turismo feriak rabiliko ditugu. Eta ondasunak saltzeko berriz gure ofizinako dendan eta gure web orria ere erabiliko ditugu.



BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harremanari garrantzi handia ematen diogu gure enpresan, harreman ona izatea garrantzitsua bait da.

Gure bezeroekiko harremana bi motatakoa da:

- Webgune bidez
- Getariako bulegoan

Webgune bidez egiten diren eskaerak, Leire arduratuko da.

Getariako bulegora deitzen badute edo bertan egiten badituzte eskaerak, Marina eta Nerea arduratuko dira.

Webgunean eta Getariako bulegoan eskaintza berdinak ditugu.



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresaren funtsezko baliabideak hiru taldetan sailkatuko ditugu: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak eta finantza-baliabideak.

Alde batetik, ditugun baliabide fisikoak hurrengo hauek dira: Getariako bulegoa, gure bezeroak mugitzeko autobusak eta kirol desberdinak egiteko behar den materiala (surfeko tablak, bizikletak, belak, piruagak, parapenteak...).

Beste aldetik, baliabide intelektualak eta giza baliabideak ditugu. Moltzo honetan, Marinaren webgunea sortzeko trebetasuna, Leireren ideia originalak eta Nerearen negoziatzeko ahalmena sartzen dira. Baita ere gure bezeroekin beraien hizkuntzan jarduteko eta harremantzeko ahalmena.

Azkenik, finantza-baliabideak ditugu. Diru Iturrien atalean jarri dugun bezela, gu hiruon artean jarritako kapital soziala 9.000 €-koa da. Hala ere, argi dago gure enpresaren diru sarrera nagusia berezori eskaintzen dizkiegun ekintza eta txangoetan lortutako dirua dela.

FUNTSEZKO JARDUERAK

Ekintzak antolatzea oso zaila egin zitzaigun, gehienbat ekintza asko daudelako eta batzuk aukeratzea ez da batere erraza. Turista denei ez zaizkie ekintza mota berdinak gustatzen, beraz, mota ezberdinetako ekintzak aukeratu genituen.

Hala ere, gure web orri propioa eta sare sozialak garrantzi handia dute, bertan publizitatea egiten bait dugu.



KOSTUEN EGITURA

Kostu finkoak: Produzitutako produktu edo zerbitzu kopuruaren arabera aldatzen ez diren kostuei honela esaten zaie.

Gure kasuan, zerbitzuak ematen ditugu eta salgaiak saltzen ditugu, baina ez dugu ekoizpenik egiten beraz, ez daukagu ekoizpeneko kostu aldakorrik.

Hauek dira gure kostu finko nagusiak:

- Soldatak (hiru bazkideen soldatak)
- Lokalaren errenta eta aseguruua.
- Garbiketa

Kostu aldakorrik: enpresaren iharduera-maila edo ekoizpenarekin batera gehitzen den horri deritzo.

Hauek dira gure kostu aldakor nagusiak:

- Autobusa
- Ekintzetako gastu desberdiñak: surfeko tablak, bizikletak, parapenteak, piraguak, belak.
- Ekintzetan arriskua kubritzen dituen seguruak

eskalako ekonomiak eta hedadura-ekonomiak.